

biblioteka

LIBURU ELEKTRIKOEN IRAKURGAILUAK MAILEGUAN ERAMATEKO ARAUDIA

SARRERA

Bibliotekak liburu elektronikoen irakurgailuak (eReader-ak) jartzen ditu erabiltzaileen esku maileguan eramateko.

BALDINTZA OROKORRAK

- Derrigorrezkoa da 16 urtetik gora izatea eta Arrasateko Bibliotekako edo EIPSeko (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea) beste edozein bibliotekako bazkide izatea.
- Maileguaren iraupena gehienez hilabetekoa izango da.
- Pertsona bakoitzeko irakurgailu bakarra utziko da.
- Irakurgailuaren arduradun osoa erabiltzailea da eta maileguak irauten duen bitartean gailua gorde eta zaintzeaz arduratuko da.
- Liburu elektronikoen irakurgailuak arazoren bat badauka edo gaizki funtzionatzen badu, berehala eman beharko zaio horren berri bibliotekari.
- Erabiltzaileak ezin izango ditu gailuaren aplikazioak eta osagaiak aldatu.
- Gailuaren mailegua eskualdaezina da eta ezin zaio beste pertsona bati utzi.

GALTZEAK EDO HONDATZEAK

- Gailua modu egokian erabiliko da eta egoera onean itzuliko da bibliotekara.
- Irakurgailua galdu edo hondatuz gero, erabiltzailea behartuta dago marka eta ezaugarri berbereko beste gailu batekin ordezkatzera.

Nik,, NAN.....dudan arauak irakurri eta onartzen ditut.

Arrasate, 20__ / /

Sinadura